

GOBIERNO DE NAVARRA

PRESIDENCIA, ADMINISTRACIONES
PÚBLICAS E INTERIOR

ECONOMIA Y HACIENDA

CULTURA, TURISMO Y RELACIONES
INSTITUCIONALES

EDUCACION

SALUD

POLÍTICA SOCIAL, IGUALDAD,
DEPORTE Y JUVENTUDDESARROLLO RURAL, INDUSTRIA,
EMPLEO Y MEDIO AMBIENTE

FOMENTO Y VIVIENDA

SEGURIDAD Y EMERGENCIAS

UPN eta PSNk legegintzaldi honetarako izenpetu duten Gobernuko ituna jarraitzeko batzordea eratu dute

Bi alderdiek itunaren indarraldia berretsi, eta hura legegintzaldi guztian zehar gauzatzeko konpromisoa agertu dute

Viernes, 23 de septiembre de 2011

Nafarroako Gobernuaren osatzen duten bi alderdiek, Union del Pueblo Navarro (UPN) eta Nafarroako Alderdi Sozialistak (PSN-PSOE), [2011-2015 legegintzaldirako bi alderdiek izenpetutako Gobernuaren Itunaren Koordinazioko Batzorde Orokorra](#) eratu dute gaur.

Nafarroako Jauregiko Lehendakarien Aretoan

egindako bilkuran honako hauek izan dira: UPNren aldetik, Yolanda Barcina Nafarroako Lehendakaria; Alvaro Miranda bigarren lehendakariordea eta Ekonomia eta Ogasun Departamentuko kontseilaria; eta baita Carlos García Adanero alderdiaren idazkari nagusia ere. PSN-PSOE alderdiaren ordezkariak ondorengoak izan dira: Roberto Jiménez lehen lehendakariordea eta Lehendakaritzako, Administrazio Publikoetako eta Barneko Departamentuko kontseilaria; Elena Torres Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuko kontseilaria; eta Juan José Lizarbe alderdi sozialistako bozeramailea.

Bileran zehar, bi alderdiek iragan ekainean izenpetutako itunari gehitzen zaion eranskin bat onartu da. Bi puntu dituen testuak, honako hau jasotzen du:

- 2011ko ekainaren 21ean UPN eta PSNren artean izenpetutako Gobernuko Itunaren indarraldia berresten dugu. Itun hori Nafarroako Gobernuaren jardunbiderako ildo nagusia da, eta hortik kanpo aldeetako batek izenpetutako akordio politiko batek ez du inolaz ere itun hori atzeratu edo aldatuko, eta kontraesanen baten egonez gero, ituna nagusituko da beti.

-Bi aldeok gure konpromisoa agertzen dugu Nafarroako Gobernuaren egonkorra izaten segi dezan legegintzaldi guztian, hain konplexua den egungo egoera ekonomiko eta sozial honi aurre egiteko beharrezkoak diren neurriak hartu ahal daitezken, behar den konfiantza sortuz, eta enplegua sortzeko helburuarekin.



Gobernuko Itunaren Koordinazioko Batzorde Orokorren egindako bilkura.

Argazki-oina (ezkerretik eskuinera): Álvaro Miranda, Yolanda Barcina, Carlos García Adanero, Juan José Lizarbe, Roberto Jiménez eta Elena Torres.